

# Jon Arretxek Bilbotik Pirinioetara bidali du Toure, ardiak zaintzera



Pertsonaiari eutsi dio, baina pasaiaz eta giroz aldatu du oraingoan Jon Arretxek. / MÓNICA RIVERO

# Emandako hitza janda, 'Ez erran deus' eleberrian baserri-giroan kokatu ditu Toure paperik gabeko etorkin afrikarraren gorabeherak

NEREA AZURMENDI

Miércoles, 28 noviembre 2018, 09:58



2012an ezagutu zuten irakurleek, '19 kamera' eleberriaren bitartez, **Jon Arretxe** (Basauri, 1963) idazleak sortutako **Toure**, Burkina-Fason jaiotako gizonezkoa, pateran etorritako paperik gabeko etorkina, erdi-detektibe, erdi-igarlea. Aurreneko haren ondoren, Toure protagonista zuten beste lau nobela ekarri zituen Arretxek, hutsik egin gabe, hurrengo lau urteetan. **Ereinek 'Uzta gorria' bilduman** argitaratu dituen eleberri horien bitartez, Toureri maitasuna hartzeaz gain, bere modukoz osatutako lagunartea -Sa Kene, Osman, Xihab...- eta **Bilboko San Frantzisko** «auzo baztertuko» giroa ezagutzeko aukera izan dute sagaren irakurle ugariak.

2017an atsedean eman zion Arretxek Toureri -hura gabeko eleberria argitaratu zuen, 'Arrutiren banda' -, baina ekarri du bueltan **'Ez deus erran'** nobelarekin. Ekarki baino gehiago, eraman egin du: **Bilbotik Nafarroako Pirinioetara**; San Frantzisko auzoko giro urbano eta marjinaletik, Orbe izeneko herri imajinarioko belardi eta kaleetara.

Horretarako, emandako hitza jan behar izan du Arretxek, eta desafio handi bati aurre egin. «**Esanda neukan ez nuela inoiz idatziko landa-**

**giroko nobela beltzik**, nire printzipioen aurka zihoalako», esan du Arretzek Ereingo editore Iñaki Aldekoa alboan zuela astearte honetan Donostian egin duen aurkezpenean. Printzipioak, ordea, urratzeko eginak daude, eta Tourek ez zuenez gehiago aguantatzen San Frantziskon, nafar Pirinioko herri txiki batera ihes egin du. Eta hantxe girotu behar izan ditu idazleak berak sortutako pertsonaiaren azken ibilerak.

### **Edonora joanda ere, gizagaixo**

«San Frantziskon **Poliziaren txotxongilo eta txibato** bilakatuta zegoen Toure, egoera ezin zuen jasan, eta handik **alde egitea** erabakiko du, ezkutatzea. Badu aspaldiko lagun bat, **Adama**, pateran ezagutu zuena. Nafarroako mendialdeko herri txiki batean bizi da, eta gasolindegia batean egiten du lan egunean 24 orduz. Lo ere han egiten du, 400 euroko soldataren truke», azaldu du Arretzek, nabarmenduz Adamaren bizi-baldintzak ez direla fikziozkoak, ezagutu dituelako berak horrela bizitakoak.

Toureren lehentasuna San Frantziskotik desagertzea eta bertan dituen morrontzetatik askatzea denez, Adamarekin elkartuko da hura bizi den herrian, Bilboko lagunekin kontatua erabat moztuta. Orbeko gizonezko batek borda batean bizitzeko aukera emango dio Toureri, tarteka eskupekoren bat ere bai, **ardiak zaintzearen eta bordako lanak egitearen truke**. Duintasunez elikatzeko beste ere ez du ateratzen, ordea, artzaintzatik.

Toure, beraz, han ere ez da zorte oneko, ez du aurkituko bila dabilen

bakea. «**Ezin dio bere patuari ihes egin**, horrela jaio da, eta han ere **izorratuta dagoen etorkin txiro paperbako**» bat izango da, Arretxeren hitzetan. Edonora joanda ere, gizagaixo. Herriak, bestalde, herri txikien alde txar guztiak ditu: **gaiztotzen doazen esan gabekoak, inbidiak, ezinikusiak, pertsonaia xebreak**, «putakume lehiaketa batean» oso urruti iritsiko liratekeen biztanleak.. Bakanen bat izan ezik -beti dago Toure maite duen norbait-, **bere kontra izango ditu** herritar gehienak, mesfidati ere bai horietako zenbait.

Toure, dena den, ez da mugatuko ardiak zaintzera eta, ohi duenez, argitu beharko duen **nahaspila baten erdian aurkituko du bere burua**. Berez arrotza duen medioan ondo moldatzen da, eta umore ukiturik ez ere da falta. Hortik aurrera ezin da askorik argitu, nobelaren amaierako ezustekoa zapuztu gabe.

Arretxerentzat «**desafio handi bat**» izan da 'rural noir' azpigeneroan sailkatu duten 176 orrialdeko eleberria idaztea. «**Hiri batean gauza asko gertatzen dira**. Begiratzen eta entzuten egonda, besterik gabe, milaka ideia sortzen zaizkizu. **Herritxo batean**, berriz, **ez da ezer gertatzen**» esan du. Eta ondo ezagutzen ditu Jon Arretxek herri txikiak, Arbizun bizi baita aspaldiko partez, Nafarroan. Itzultzekotan, hortaz, nekez itzuliko da Toure herri txiki batera. Errazago agertuko da hurrengoan «milioika biztanleko hiri handi batean».



## La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

**Apúntate**

---

### Lo + leído

El Diario  
Vasco

Libros

[Top](#)

[50](#)

- 
- 1 **Los reflejos infinitos del espejo de Robinson Crusoe**

---

  - 2 **Un libro relata la historia de la pesca del bacalao y los vascos**

---

  - 3 **Pablo Aranda: «Nuestra frontera sur bien podría constituirse en territorio literario»**

---

  - 4 **El quidditch, el deporte que descubrió Harry Potter**

---

  - 5 **Viñetas para un poeta de Granada**








 **Comentarios** 

---

## Patrocinada

---

## Noticias relacionadas





**'Everest: Herri oso bat gailurrean', balentria baten kronika marraztua**

**'Poza', kontatzeko baino gehiago kantatzeko den liburua**

**Neskatoak ez daki zer egingo dion pederastak, irakurleak bai**

Fotos



**📹 El paso de Bertolucci por el Festival de Cine de San Sebastián**





**📹 Bertolucci, el último gran maestro del cine italiano**



**📹 Joaquín Montero, el arquitecto que mira alrededor**



**📹 La Trilogía de Baztan**

Vídeos




**▶ Poza, ikusteko eta entzuteko bertsoak**

---




**▶ 21. Korrikaren abestia eta bideoklipa**

---



**▶ La misión InSight aterrizará hoy en Marte**

---



**▶ Guns n' Roses terminan antes de tiempo un concierto por enfermedad de Axl Rose**

# EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018



vocento ✓

[Contactar](#) | [Aviso legal](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Mapa web](#) | [Política de cookies](#)